

① ELHEKETA - ASTE HUNTAKO SOLASGAIA.

- ① Piarresek zer egin erle-umea finkatu oragutako haitz-ondoan?
- ② Zertako eman zigkion bi haizkor ukaldi haitz-ondoari?
- ③ Nun ezarri zuen Kofona Piarresek? Eta ordutik lanetan zer egin zuten erlek?

② BAS-HERRIETAKO ZORIONA 3.

Zonbeit aste lehenago, burrunbaka zabilan erle-ume³ bati oiha-nean oharturik, hosto, xixtapur eta harri kixkolak⁴ ahutaraka aintzi-nera arthiki ziozkan Piarresek, oihurik amultsuena ere ba: *Bil Maria, Bil Maria!* Eta, erle-umea finkatu zen haitz-ondoari, bi haizkora ukaldiz, kurutze bat egin zion berehala. Erle-umea harena zen handik harat, nehor sekulan ez baitzen erle-pilotari⁵ atrebituko herrian, eta, norbeit atrebitzekotz, *segur hilen baitzitzatzkon hart erle maiteak.* Kofoin bat ederra ekarri zioten gero Piarresek eta haitz-ondoari hurbil hurbila eman. Eta erle gaixoak pulliki sartu ziren kofoinan, xoriak beren ohantzean bezala, osoki berehala etxekotuak, kofoinetik loreetara, loretarik kofoinera xafllaka he-galdatuak, beren lan zinez *eztiari* kuxean emanak.

Eta, han, Oihanaldeari hurbil, gogoratu zitzaion Piarresi, erle-
 e hura kofoinera baino maitekiago bazoazila hek *beren etxera.*
 s-leku hoberik ez zuten nahi, ez herrian zaudenek, ez eta ere
 herritik urrun, itsasoz itsaso, Ameriketarat egun batez joan zirenek,
 noizpeit oraino harat bererat berriz itzultzekotan. Hilak berak han
 gaindi ibilki ziren, biziek zonbeit aldiz sumatzen bezala baitzitzuz-
 ten, ohiko tokietarat ixil ixila jinak; nehor sekulan izitu gabe,
 hainbertze maite izan zituztenen laguntzera berriz ethorriak... Eta
 sukalde beroan sartu zen Piarres, gogoeta goxo horiek bihotzean.

34. IZAN. Régime Indirect. Indicatif. Imparfait

<u>SINGULIER</u>	Hura zen = il'était
Hura (lui) zitzaitan (à moi) = il m'était	
— " — zitzaizun (à vous) = il vous était	
— " — zitzaion (à lui) = il lui était	
— " — zitzaizun (à nous) = il nous était	
— " — zitzaizuen (à vous) = il vous était	
— " — zitzaion (à eux) = il leur était	

35. PLURIEL Hek ziren = ils étaient

Hek (eux) zitzaizkitan (à moi) = ils m'étaient
— " — zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient
— " — zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient
— " — zitzaizkigun (à nous) = ils nous étaient
— " — zitzaizkizuen (à vous) = ils vous étaient
— " — zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient

③ ADITZ IKASKUNTZA

- 31. burrunbaka zabilan 32. arthiki ziozkan
- 33. egin zion 35. hilen baitzitzatzkon
- 34. gogoratu zitzaion 36. maitekiago bazoazila
- 37. ez herrian zaudenek

31. BILI = marcher = INDICATIF

<u>Présent</u>	<u>Imparfait</u>
Ni nabila = je marche	N. mindabilan = je marchais
Hi nabila = tu marches	H. mindabilan = tu marchais
Zu zabilta = vous marchez	Z. zindabiltan = vs marchiez
Hura dabila = il marche	H. zabilan = il marchait
Gu gabiltza = ns marchons	G. zindabiltan = ns marchions
Zuek zabilta = vs marchez	Z. zindabiltan = vs marchiez
Hek dabilta = ils marchent	H. zabiltan = ils marchaient

32. UKAN. Conjugaison à dble eplt. INDICATIF

<u>Imparfait.</u>		
<u>C.D.P</u>	<u>Hari = à lui</u>	<u>C.I.S</u>
Nik niozkan = niozkion = je les lui avais		
Hik hiozkan = hiozkion = tu les lui avais		
Zuk ziozkan = ziozkion = vous les lui aviez		
Harek ziozkan = ziozkion = il les lui avait		
Guk giozkan = giozkion = nous les lui avions		
Zuek ziozkatu = ziozkatu = vous les lui aviez		
Heiek ziozkatu = ziozkion = ils les lui avaient		

33. UKAN. Conj. à dble eplt. Imparfait. INDICATIF

<u>C.D.S</u>	<u>Hari = A lui</u>	<u>C.I.S</u>
Nik nion = je le lui avais		
Zuk zinion = vous le lui aviez		
Harek zion = il le lui avait		
Guk ginion = nous le lui avions		
Zuek zionten = vous le lui aviez		
Heiek zioten = ils le lui avaient		